

- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- K Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Tenisa

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



MINI TENISA

1. JOKALEKUAREN ETA SAREEN NEURRIAK.

1.1. Jokalekuaren forma eta neurriak.

Jokalekua 12,8 m luze eta 8,23 m zabal inguruko laukizuzen bat da.

Oinarrizko seinaleak

- Tarte libreko eremua.- Atzeko marraren nahiz alboko marraren atzean 2 metroko tarte libre utzi behar da jokatzeko.

1.2. Sarearen forma eta neurriak.

Sarearen altuera kirolarien adinaren araberakoa izango da. Erdian 70-80 cm-ko altuera izango du eta 80-90 cm-koa muturretan.

2. PARTIDA MOTAK.

2.1. Banakako partidak.

2.2. Binakako partidak.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

21na tantoko 3 mini set jokatu dira. Mini seten artean minutu eta erdiko atsedena egingo da.

3.1.- Berdinketa.

20na tantoko berdinketa eginez gero, jokatzeko jarraituko da jokalarietako batek 2 puntuko aldea lortu arte.

4. MATERIALA.

4.1. Erraketa.

Luzera 54-59 cm artekoa eta pisua 270-280 gr artekoa. Edozein motatakoa izan daiteke (egurrezkoa, plastikozkoa, ...), baina ohikoa baino txikiagoa eta jokalarien ezaugarri fisikoetara egokitua.

4.2.- Pilotak.

Tenisekoen antzeko ezaugarriak eta tamaina izango dute, baina arinagoak eta bote gutxiagokoak. Diametroa 6,35-6,67 cm artekoa eta pisua gehienez 56,7 gr-koa.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Sakea.

Jokalaria bakoitzak bi sake egin ahal izango ditu jarraian. Sakea behetik egin ahal izango da, baldin eta pilotak ez badu boterik egiten lurrean.

Tenisa

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



TENISA BANAKAKOA

1. JOKALEKUAREN ETA SAREEN NEURRIAK.

1.1. Jokalekuaren forma eta neurriak.

Jokalekua 23,77 m luze eta 8,23 m zabaleko laukizuzen bat da. Erdian, jokalekua bi zatitan banatuz, gehienez ere 0,8 cm-ko diametroa duen soka edo metalezko kable batetik zintzilik sare bat jartzen da, eta honen bi muturrak gehienez ere 15 cm-ko diametroa izango duten bi zutoinen goiko aldean finkatuta egongo dira. Zutoin horiek gehienez ere sarearen sokaren goiko aldea baino 2,3 cm gorago iritsiko dira. Zutoinen erdiguneak binakakoen marrantik kanpora egongo dira 0,914 m-ko tartera eta sokaren edo metalezko kablearen goiko aldea lurretik 1,07 m-ra gelditzeko adinako altuera izango dute.

Oinarrizko seinaleak (1. irudia)

Zeharkako marrak:

- *Atzeko marra.*- Jokalekuaren muturrak mugatzen dituzten marrak dira. Bi zatitan banatuta daude, pistaren barruko aldetik angelu zuzena osatuz eta atzeko marrak ukitutuz egindako 10 cm luze eta 5 cm zabaleko marra baten bidez, marra horri erdiko marra deitzen zaio eta sakeko erdiko marraren irudimenezko luzapen bat izango litzateke.
- *Erdiko marra.*- Jokalekua erdibitzen du eta sarea kokatzen da gainean.
- *Sakeko marrak.*- Sarearen alde banatan, sarearekiko paraleloan eta 6,40 m-ko distantziara markatuta daude. (Sakeak sartu behar duen laukia mugatzen du).

Luzerako marrak:

- *Sakeko erdiko marra.*- Jokalekua erdibitzen du. Saretik 6,40 m-ko tartera bakarrik markatzen da (sakeak sartu behar duen laukia mugatzen du). 5 cm zabal izango da eta paraleloan dituen alboko marretatik distantzia berera egongo da.
- *Alboko marrak.*- Jokalekuaren alboak mugatzen dituzten marrak dira.

Marrek kolore uniformeak eta 2,5 eta 5 cm arteko zabalera izango dute, atzeko marrak izan ezik, 10 cm-ko zabalera ere izan baitezake. Neurri guztiak marren kanpoko aldetik neurtzen dira.

- *Sakeko laukia.*- Erdiko, alboko eta sakeko marrek osatutakoa. Sakeak lauki horren barruan sartu behar du.
- *Tarte libreko eremua.*- Jokatzeko atzeko marraren atzean 5 metroko tarte libre eta alboko marren atzean 3 metrokoa uztea gomendatzen da.
- *Osagarri finko iraunkorrak.*- Osagarri finkotzat jotzen dira: sarea, zutoinak, binakakoen makilak, soka edo metalezko kablea, zinta eta jokalekuaren atzean nahiz aldeetan kokatuta dauden oztopoak, hala nola, tarimak, eserleku finkoak eta mugikorrak, pistaren inguruan dauden aulkiak eta bertan eserita daudenak, aulkiko, sareko, oin-faltako eta marrako epaileak eta pilota biltzaileak.


1.2. Sarearen forma eta neurriak. (2. irudia)

Sarea erabat zabaldua egongo da eta zutoinen arteko espazio guztia beteko du. Sare-begia pilota zeharkatzen ez uzteko bezain txikia izango da. Sareak erdian 0,914 m-ko altuera izango du eta sareari eusteko gehienez ere 5 cm zabaleko zinta zuri bat edukiko du. Soka edo metalezko kablea eta sarearen goiko aldea 5 eta 6,3 cm arteko zabalera zinta zuri batez estalita egongo dira.

- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- K Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Tenisa


ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- K Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Tenisa

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



2. JOKALARIAK ETA OFIZIALAK. SAKATZAILEA ETA ERRESTATZAILEA.

Jokalariak sarearen alde banatan kokatuko dira eta pilota lehenengo jaurtitzen duena sakatzailea izango da eta bestea errestatzailea.

Jokaleku aldearen hautaketa eta lehenengo jokoan sakatzaile edo errestatzaile izateko eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Zozketa irabazten duenak jokaleku aldea edo sarea erabakiko du.

PISTAKO OFIZIALAK.

- **Arbitro epailea.** - Azken erabakia berea da.
- **Aulkiko epailea.** - Laguntzaileen erabakiak zuzendu ditzake eta jokoan berak erabakitzen du.
- **Epaile laguntzaileak.** - Azken erabakia ematen dute izatezko gaiei buruz:
 - Marrako epaileak
 - Sareko epaileak
 - Oin-faltako epaileak
- **Pilota biltzaileak**

3. PARTIDEN IRAUPENA.

Hiru set jokatzen dira. Set bakoitzak 6 joko ditu eta set bat irabazteko beti 2 jokoko aldea lortu behar da.

6na berdinduz gero tie-break bat, edo desberdinketa, jokatuko da 7 puntura, eta irabazteko 2 puntuko aldea atera beharko da.

3.1. - Partida hasiera.

Partida hasi aurretik, 5 minutu izango dituzte beroketa egiteko kantxan.

Tenisa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

Kantxa eta sarea zozketatuko dira eta irabazten duenak bata edo bestea aukeratuko du.

3.2.- Atsedenaldiak.

- Jokaleku aldaketa egiten den bakoitzean minutu bat.
- Tantotik tantora gehienez ere 25 segundo izango dituzte pilota jokoan jartzeko berriz.
- Lesiorik gertatuz gero, jokoa 5 minutuz geldituko da gehienez ere.

4. MATERIALA.

4.1. Erraketa.

Pilotari jotzeko erabiltzen den zatia laua izango da, marko batean lotuta dauden soka elkar gurutzatuz osatuta egongo da eta lortutako sarea uniforme eta dentsitate berdinekoa izango da.

Erraketaren markoa, heldulekua eta sokak barne hartuta, gehienez ere 81,28 cm luze eta 31,75 cm zabal izango da, eta ez du bere forma edo pisu banaketa alda dezakeen ezer eramango.

Erraketaren sokak gehienez ere 39,37 cm luze eta 29,21 cm zabal izango dira.

4.2.- Pilotak.

Kanpoaldea uniforme eta kolore zuri edo horikoak izango dira. Diametroa 6,35 eta 6,67 cm artekoa eta pisua 56,7 eta 58,5 gr artekoa.

Pilotaren errebotea 135 eta 147 cm artekoa izango da, 254 cm-ko altueratik lur gogor batera jaurtitzen denean.

Pilota guztiek errebote, tamaina eta deformazio probak gainditu beharko dituzte haiekin jokatu ahal izateko.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Sakea.

Sakea egingo duen jokalaria atzeko marraren ostean jarriko da bi hankak lurrian ondo bermatuta dituela eta erdiko markaren eta alboko marraren irudimenezko luzapenen barruan. Orduan pilota gora jaurtiko du eta lurrera erori aurretik erraketarekin joko dio. Sakea egindakotzat joko da erraketak pilota jotzen duen unean.

Sakea egiterakoan, sakatzaila bere jokalekuko ezker aldeko eta eskuinaldeko zatien artean kokatuko da txandaka, joko bakoitzean eskuinaldetik hasita. Aldez nahasten bada, sake horren ondorengo joko baliozkoa izango da akatsa antzematen den arte, eta orduan berehala zuzendu beharko da posizioa.

Sakea egin ondoren pilotak sarearen gainetik pasa behar du eta beste aldean diagonalean dagoen sakeko laukiaren barruan jo behar du lurra. Lauki hori mugatzen duten marrek ere balio dute.

Sakeak hurrenkera jakin bat jarraituko du, hartara lehenengo joko amaitzean errestatzaila sakatzaile izatera pasako da eta alderantziz, eta horrela egingo da txandaka ondorengo joko guztietan.

5.2. Jokaleku aldaketa.

Jokalariek set bakoitzaren lehenengo jokoaren, hirugarrenaren eta ondorengo joko bakoitien amaieran eta setaren amaieran jokaleku aldaketa egingo dute, baldin eta setaren joko kopurua bikoitia ez bada, horrelakoetan jokaleku aldaketa hurrengo seteko lehenengo jokoaren amaieran egingo baita.

5.3. Puntua galtzea.

Jokalaria puntu bat galduko du:

- Pilotak gorputzean jotzen duenean.
- Sakean falta bikoitza egiten duenean.
- Pilotak bi bote eman ondoren errestatzen duenean.
- Pilota jokoan dagoela, sarea edo zutoinak ukitzen dituztenean edo aurkariaren jokalekuan sartzen denean.
- Pilota jotzeko erraketa jaurtitzen duenean.
- Pilotari boleaz ematen dionean aurkariaren jokalekuan jarraitzen duen bitartean.

5.4. Puntua irabaztea.

Tenisa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

Sakatzaileak puntu bat irabaziko du:

- Arauak betez jokalekuaren beste aldera pilota pasarazten duenean eta errestatzaileak ezin duenean bueltatu.
- Errestatzaileak aurreko puntuan adierazitako hutsak egiten dituenean. Errestatzaileak puntu bat irabaziko du:
- Sakatzaileak jarraian sakeko bi falta egiten dituenean.
- Sakatzaileak aurreko puntuan adierazitako hutsak egiten dituenean.

5.5. Baliozko errestoa.

Errestoa ona izango da pilotak sarea, zutoinak, banakakoen zutoinak, soka edo metalezko kablea nahiz zinta ukitzen baditu, baldin eta horien gainetik igarotzen bada eta pistako lurra ukitzen badu, betiere pilotari eman dion jokalariai aurreko objektu horiek ukitu gabe; alabaina pilotari jo ondoren erraketa sarearen gainetik pasa daiteke.

5.6. JOKOaren puntuazioa.

Tenis partida bateko puntuazioa, berdinketaren ondorioz luzatzen ez denean, lau punturen sekuentzia bat da, 15, 30, 40 eta jokoa izenez deitzen direnak. Punturik ez dagoenean "ezer ez" (*love*) esaten da. 40nako berdinketari (deuce) "berdinketa" esaten zaio eta jokoak jarraitu egiten du jokalarietako batek bi puntu jarraian egin arte. Berdinketa hautsiko duten bi puntu horiek lehenik lortzen dituen jokalariai, hau da, hurrengo puntuarekin jokoa irabazteko egoeran jartzen den jokalariai, abantaila duela esaten da.

5.7. SETaren puntuazioa.

Jokalaria batek seta irabaziko du lehena bada 6 jokora iristen 2 jokoko aldearekin.

Tie-breakaren puntuazio sistema abantailako setaren sistemaren ordezkari erabil daiteke, hiru seteko partida bateko hirugarrenean izan ezik eta, betiere, erabakia aurrez adierazi behar da.

Tie-break, 7 tanto lortzea 2ko aldeaz. Sakeen hurrenkera: ateratzen lehena denak sake bakarra egiteko aukera izango du. Ondoren beste jokalariai txanda izango da eta bi sake jarraian egiteko aukera izango du, eta horrela jarraituko dute txandakatuz.

5.8. Joko garaiko jarraibideak.

Taldeko txapelketako partida batean, jokalariai pista barruan eserita dagoen kapitainaren aholkuak bakarrik jaso ditzake. Aholku horiek jokalariai jokoa amaitutakoan jokalekuz aldatzen direnean bakarrik eman ahal izango dira, eta inoiz ez tie-breakaren ostean jokalekuz aldatzen direnean.

5.9. Faltak.

- Sakeko faltak:
Sakatzaileak bi aukera izango ditu sakea ondo egiteko.
Falta bat egiten badu bigarren aukera bat izango du eta bi falta egiten baditu, falta bikoitza izango da, eta errestatzaileak puntu bat irabaziko du.
 - Let edo errepikatzea.- Pilotak sarea ukitu arren dagokion laukian sartzen denean edo errestatzailea prest egon gabe sakea egiten denean. Horrelakoetan, sakatzaileak sakea errepikatuko du, falta hori gertatu bezain bestetan.
 - Oin falta.- Sakea egiterakoan atzeko marra zapaltzea. Pilotari jo ostean jokalekuan sar daiteke.
 - Pilotari ez jotzea, saiatu arren, jaisten ari denean.
 - Sakea egitea aurkaria prest egon gabe.
- Let edo errepikatzea.- Jokatzan ari den bitartean jokalariai jokoaz kanpoko eta bere gogoaz kontrako egoeraren batek oztupo egiten dionean. Horrelakoetan tantoa errepikatu egin behar da.
- Jokabide desagokiak: jokoa nahita atzeratzea, garaiz ez iristea, hizkera lizuna erabiltzea, aholkuak jasotzea, keinu desagokiak egitea, pilotei, erraketari edo tresneriari tratatu txarra ematea, iraintzea, erasotzea eta kiroltasunaren aurkako jokabideak izatea zigortzeko arrazoiak izango dira; hala, lehenengo urraketan ohartarazpena egingo da, bigarrenean aurkariari puntu bat emango zaio eta hirugarrenean urratzailea kanporatu egingo da eta partida galdutzat emango zaio.

Tenisa

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



TENISA BINAKAKOA

1. JOKALEKUAREN ETA SAREEN NEURRIAK.

1.1. Jokalekuaren forma eta neurriak.

Jokalekua 23,77 m luze eta 10,97 m zabaleko laukizuzen bat da, hau da, banakakoaren pista baino 1,37 m zabalago alde bakoitzean.

Oinarrizko seinaleak (1. irudia)

- **Sakeko alboko marrak.** - Sakeko bi marren artean dauden banakakoaren alboko marren frakzioak dira.
- **Binakakoaren korridorea.** - Alboko marretatik 1,37 m-ko tartera korridore horiek osatuko dituzten bi marra paralelo egiten dira binakako partidetarako jokalekua markatuz.

Sarearen alde banatan dauden atzeko marren eta sakekoaren arteko banakakoaren alboko marren frakzioak markatu gabe utzi daitezke, baina lehen aipatutako banakako jokalekuko gainerako ezaugarri guztiak modalitate honetarako erabil daitezke.

1.2. Sarearen forma eta neurriak. (2. irudia)

Sarea erabat zabaldua egongo da eta zutoinen arteko espazio guztia beteko du. Sare-begia pilota zeharkatzen ez uzteko bezain txikia izango da. Sareak erdian 0,914 m-ko altuera izango du eta sareari eusteko gehienez ere 5 cm zabaleko zinta zuri bat edukiko du. Soka edo metalezko kablea eta sarearen goiko aldea 5 eta 6,3 cm arteko zabalerako zinta zuri batez estalita egongo dira.

2. JOKALARIAK ETA OFIZIALAK.

SAKATZAILEA ETA ERRESTATZAILEA.

Jokalariak sarearen alde banatan kokatuko dira eta pilota lehenengo jaurtitzan duena sakatzailea izango da eta bestea errestatzailea.

Jokaleku aldearen hautaketa eta lehenengo jokoan sakatzaile edo errestatzaile izateko eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Zozketa irabazten duenak jokaleku aldea edo sakea erabakiko du.

PISTAKO OFIZIALAK.

- **Arbitro epailea.** - Azken erabakia berea da.
- **Aulkiko epailea.** - Laguntzaileen erabakiak zuzendu ditzake eta jokoan berak erabakitzen du.
- **Epaile laguntzaileak.** - Azken erabakia ematen dute izatezko gaiei buruz:
 - *Marrako epaileak*
 - *Sareko epaileak*
 - *Oin-faltako epaileak*
- **Pilota biltzaileak**

3. PARTIDEN IRAUPENA.

Hiru set jokatzen dira. Set bakoitzak 6 joko ditu eta ez da beharrezkoa bi jokoko aldeaz irabaztea, hala ere, akordio batera iritsiz gero gerta liteke tie-breakak jokatu behar izatea.

3.1.- Partida hasiera.

Partida hasi aurretik, 5 minutu izango dituzte beroketa egiteko kantxan.

Kantxa eta sakea zozketatuko dira eta irabazten duenak bata edo bestea aukeratuko du.

3.2.- Atsedendia.

- Jokaleku aldaketa egiten den bakoitzean minutu bat.

Tenisa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

- Tantotik tantora gehienez ere 25 segundo izango dituzte pilota jokoan jartzeko berriz.
- Lesiorik gertatuz gero, jokia 5 minutuz geldituko da gehienez ere.

4. MATERIALA.

4.1. Erraketa.

Pilotari jotzeko erabiltzen den zatia laua izango da, marko batean lotuta dauden soka elkar gurutzatuz osatuta egongo da eta lortutako sarea uniformea eta dentsitate berdinekoa izango da.

Erraketaren markoa, heldulekua eta sokak barne hartuta, gehienez ere 81,28 cm luze eta 31,75 cm zabal izango da, eta ez du bere forma edo pisu banaketa alda dezakeen ezer eramango.

Erraketaren sokak gehienez ere 39,37 cm luze eta 29,21 cm zabal izango dira.

4.2. - Pilotak.

Kanpoaldea uniformea eta kolore zuri edo horikoak izango dira. Diametroa 6,35 eta 6,67 cm artekoa eta pisua 56,7 eta 58,5 gr artekoa.

Pilotaren errebotea 135 eta 147 cm artekoa izango da, 254 cm-ko altueratik lur gogor batera jaurtitzen denean.

Pilota guztiek errebote, tamaina eta deformazio probak gainditu beharko dituzte haiekin jokatu ahal izateko.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Sakea.

Sakearen hurrenkera.

Hurrenkera set bakoitzaren hasieran erabakiko da eta set bakoitzaren lehenengo jokoan sakea egin behar duen bikoteak erabakiko du bietako nor izango den sakea egiten lehena; beste bikoteak ere berdin erabaki beharko du bigarren jokorako. Lehenengo jokoan sakea egiten duenaren kideak hirugarrenean sakatuko du eta bigarren jokoan sakea egiten duenaren kideak laugarrenean sakatuko du, eta horrela egingo dute hurrenkera berean set bateko gainerako jokoetan.

Sakearen txandan akatsik eginez gero, jokaturakoa baliozkoa izango da akatsa antzematen den arte. Jokoa akatsa antzeman aurretik bukatzen bada, sakearen hurrenkera aldatuarekin jarraituko da seta amaitu arte.

Errestoaren hurrenkera.

Hurrenkera set bakoitzaren hasieran erabakiko da eta lehenengo jokoan errestatzaile lanetan arituko den bikoteak erabakiko du bietako nor izango den lehenengo errestatzailea seteko joko bikoitietan. Joko bakoitzean bikotekideak txandaka arituko dira errestatzaile lanetan.

Pilota jokoan.

Binakako bikote bakoitzak txandaka jo beharko dio pilotari eta bikoteko kideetako bata zein besteak jo diezaioke. Bikote bereko bi kideek ezingo diote aldi berean jo pilotari, horrela eginez gero aurkariarentzat izango da tantoa.

5.2. Jokaleku aldaketa.

Jokalariek set bakoitzaren lehenengo jokoaren, hirugarrenaren eta ondorengo joko bakoitien amaieran eta setaren amaieran jokaleku aldaketa egingo dute, baldin eta setaren joko kopurua bikoitia ez bada, horrelakoetan jokaleku aldaketa hurrengo seteko lehenengo jokoaren amaieran egingo baita.

5.3. Puntua galtzea.

Bikoteak puntu bat galduko du:

- Pilotak kideetako baten gorputzean jotzen duenean.
- Sakean falta bikoitza egiten dutenean.
- Pilotak bi bote eman ondoren errestatzen dutenean.
- Pilota jokoan dagoela, sarea edo zutoinak ukitzen dituztenean edo aurkariaren jokalekuan sartzen direnean.

Tenisa



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

- Pilota jotzeko erraketa jaurtitzen dutenean.
- Pilotari boleaz ematen diotenean aurkariaren jokalekuan jarraitzen duen bitartean.

5.4. Puntua irabaztea.

Sakatzaileek puntu bat irabaziko dute:

- Arauak betez jokalekuaren beste aldera pilota pasarazten dutenean eta errestatzaileek ezin dutenean bueltatu.
- Errestatzaileek aurreko puntuan adierazitako hutsak egiten dituztenean. Errestatzaileek puntu bat irabaziko dute:
- Sakatzaileek jarraian sakeko bi falta egiten dituztenean.
- Sakatzaileek aurreko puntuan adierazitako hutsak egiten dituztenean.

5.5. Baliozko errestoa.

Errestoa ona izango da pilotak sarea, zutoinak, binakakoen zutoinak, soka edo metalezko kablea nahiz zinta ukitzen baditu, baldin eta horien gainetik igarotzen bada eta pistako lurra ukitzen badu, betiere pilotari eman dion jokalariai aurreko objektu horiek ukitu gabe; alabaina pilotari jo ondoren erraketa sarearen gainetik pasa daiteke.

5.6. Jokoaren puntuazioa.

Tenis partida bateko puntuazioa, berdinketaren ondorioz luzatzen ez denean, lau punturen sekuentzia bat da, 15, 30, 40 eta jokoa izenez deitzen direnak. Punturik ez dagoenean "ezer ez" (love) esaten da. 40nako berdinketari (deuce) "berdinketa" esaten zaio eta jokoak jarraitu egiten du bikoteetako batek bi puntu jarraian egin arte. Berdinketa hautsiko duten bi puntu horiek lehenik lortzen dituen bikoteak, hau da, hurrengo puntuarekin jokoa irabazteko egoeran jartzen den bikoteak, abantaila duela esaten da.

5.7. SETaren puntuazioa.

Jokalariek seta irabaziko dute lehenak badira 6 jokora iristen 2 jokoko aldearekin.

Tie-breakaren puntuazio sistema abantailako setaren sistemaren ordean erabil daiteke, hiru seteko partida bateko hirugarrenean izan ezik eta, betiere, erabakia aurrez adierazi beharko da.

Tie-break, 7 tanto lortzea 2ko aldeaz. Sakeen hurrenkera: ateratzen lehenak direnek sake bakarria egiteko aukera izango dute. Ondoren beste jokalarien txanda izango da eta bi sake jarraian egiteko aukera izango dute, eta horrela jarraituko dute txandakatuz.

5.8. Joko garaiko jarraibideak.

Taldeko txapelketako partida batean, jokalariek pista barruan eserita dagoen kapitainaren aholkuak bakarrik jaso ditzakete. Aholku horiek jokalariai jokoa amaitutakoan jokalekuz aldatzen direnean bakarrik eman ahal izango dira, eta inoiz ez tie-breakaren ostean jokalekuz aldatzen direnean.

5.9. Faltak.

- Sakeko faltak:

Sakatzaileek bi aukera izango dituzte sakea ondo egiteko.

Falta bat egiten badute bigarren aukera bat izango dute eta bi falta egiten badituzte, falta bikoitza izango da, eta errestatzaileek puntu bat irabaziko dute.

- Let edo errepikatzea.- Pilotak sarea ukitu arren dagokion laukian sartzen denean edo errestatzaileak prest egon gabe sakea egiten denean. Horrelakoetan, sakatzaileek sakea errepikatuko dute, falta hori gertatu bezain bestetan.
- Oin falta.- Sakea egiterakoan atzeko marra zapaltzea. Pilotari jo ostean jokalekuan sar daiteke.
- Pilotari ez jotzea, saiatu arren, jaisten ari denean.
- Sakea egitea aurkariak prest egon gabe.
- Let edo errepikatzea.- Jokatzeko ari den bitartean jokalariai jokoaz kanpoko eta bere gogoaz kontrako egoeraren batek oztopo egiten dionean. Horrelakoetan tantoa errepikatu egin behar da.
- Jokabide desegokiak: jokoa nahita atzeratzea, garaiz ez iristea, hizkera lizuna erabiltzea, aholkuak jasotzea, keinu desegokiak egitea, pilotari, erraketari edo tresneriari tratatu txarra ematea, iraintzea, erasotzea eta kiroltasunaren aurkako jokabideak izatea zigortzeko arrazoiak

- B Benjaminak
- A Alebinak
- I Infantilak
- K Kadeteak
- M Mutilak
- N Neskak

Tenisa

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



izango dira; hala, lehenengo urraketan ohartarazpena egingo da, bigarrenean aurkariei puntu bat emango zaie eta hirugarrenean urratzaileak kanporatu egingo dira eta partida galdutzat emango zaie.